

Haurraren nahia

- Haurra : Ama, joan naiteke Marinaren etxera ?
- Ama : Ez, goiz honetan dentistarengana eraman behar zaitut.
- Haurra : Eta arratsaldean joaten ahalko naiz Marinaren etxera ?
- Ama : Ez, abisatua zaitut amatxi heldu dela eta ikusi nahi zaitu.
- Haurra : Bihar goizean beraz joaten ahalko naiz
- Ama : Asteburu hau biziki hartua dugu eta orain geldi zaitez gauza beraren errepikatzetik !
- Haurra : Baina, ama, Marina ene lagun hoberena da eta hitzeman diot harengana joanen naizela. Otoi, istaño bat baizik ez naiz egonen !
- Ama : Hitzematen didazu oren erdi bat baizik ez duzula han iraganen ?
- Haurra : Bai ala fede ! Zin egiten dizut oren erdi ttipi bat baizik ez dudala pasatuko Marinarekin.
- Ama : Beraz, sarri, dentistaren ondotik, joaten ahalko zara.
- Haurra : Bikain ! Ama bikaina zara, munduko bikainena !
- Ama : Presta zaitez abia gaitezen. Uste dut beranta biltzen ari garela.

Jokalariak : Haur bat eta haren ama (edo aita)
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti